

Urteko 17. Igandea (B)

LEHENENGO IRAKURGAIA

Jango dute eta sobera geldituko da.

Erregeak bigarren liburutik. 4, 42-44

Etorri zen behin Baal-Xalixako gizaseme bat, ogi-hasikinak Jainkoaren gizonari ekarritz: hogei garagar-opil eta gari berria bide-zorroan. Eliseok esan zuen:

– Banatu jendeari, jan dezaten.

Morroiak galdetu zion:

– Nola banatuko dut hau ehun gizonen artean?

Eliseok erantzun:

– Banatu jendeari, eta jan dezatela. Hau baitio Jaunak: «Jango dute eta sobera geldituko da».

Banatu zuen, beraz, morroiak ogia jende artean, jan zuten eta sobera gelditu zen, Jaunak esan bezala.

Jaunak esana.

SALMOA

Salmoa 144, 10-11. 15-16. 17-18

R.

Eskua zabaldu eta asetzen duzu.

Gorets zaitzatela, Jauna, zeure sorkari guztiek,
bedeinka zeure fededunek.

Aipa bezate zure erregetza ospetsua,
mintza bitez zure ahalmenaz. **R.**

Zuri begira daude denak zain,
eta zuk jaten ematen diezu bere garaian;
eskua zabaldu

eta bizidun oro onginahiz asetzen duzu. **R.**

Zuzena da Jauna jokabide guztietan,
leiala egintza guztietan.

Hurbil da Jauna dei egiten diotenengandik,
benetan dei egiten diotenengandik. **R.**

BIGARREN IRAKURGAIA

Bat bakarra da gorputza, bat bakarra Jauna, bat bakarra sinesmena, bat bakarra bataioa.

San Paulo Apostoluak Efesoarrei egindako gutunetik 4, 1-6

Senideok:

Nik, Jaunarengatik preso nagoen honek, hartu duzuen deiari dagokionez bizi zaitezteela eskatzen dizuet. Izan apal, otzan eta jasankor, elkar maitekiro eramanez. Saia zaitezte Espirituak ematen duen batasunari eusten, elkartzen zaituzten bakeaz. Bat bakarra da gorputza eta bat bakarra Espiritua, egin zaizuen deiari dagokion itxaropena ere bat bakarra den bezala; bat bakarra Jauna, bat bakarra sinesmena, bat bakarra bataioa, bat bakarra guztien Jainkoa eta Aita, guztien gainetik dagoena, guztien bidez ari dena eta guztiengan bizi dena.

Jaunak esana.

Aleluia Lc 7,16

Aleluia, aleluia.

Profeta handi bat sortu da gure artean.

Jainkoa bere herria salbatzera etorri da. Aleluia.

EBANJELIOA

Banatu egin zituen eserita zeudenen artean nahi zuten guztia.

+ Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 6, 1-15

Denbora haietan, Galilea edo Tiberiades aintziraz beste aldera joan zen Jesus. Eta jendetza handia zihoakion atzetik, gaixoak sendatuz egiten zituen mirarizko seinaleak ikusten

baitzituzten. Jesus mendira igo eta han eseri zen bere ikasleekin. Hurbil zen Pazkoa, juduen jai nagusia. Jesusek, jende asko zetorkiola ikusirik, esan zion Feliperi:

– Non erosiko genuke ogia hauei jaten emateko?

Zirikatzeko esan zion hori, ongi baitzekien berak zer egin behar zuen.

Felipek erantzun zion:

– Berrehun denarioren ogia ez litzateke nahikoa bakoitzak puska bat izateko.

Haren ikasleetako batek, Simon Pedroren anaia Andresek, esan zion:

– Bada hemen bost garagar-ogi eta bi arrain txiki dituen mutiko bat; baina zer da hori honenbesterentzat?

Jesusek jendea eserarazteko agindu zien ikasleei. Belar asko zegoen leku hartan, eta eseri egin ziren denak. Bost milaren bat gizonezko ziren. Jesusek ogiak hartu eta, esker oneko otoitza egin ondoren, banatu egin zituen eserita zeudenen artean; berdin arrainak ere, nahi adina. Eta ase zirenean, esan zien Jesusek ikasleei: «Bil itzazue hondarrak, ezer gal ez dadin».

Bildu zituzten, bada, eta bost garagar-ogietatik jan zutenei gelditu zitzaizkien hondarrez hamabi saski bete zituzten. Jendeak, orduan, Jesusen mirarizko seinale hura ikusirik, honela zioen: «Hauxe da egiaz mundura etortzekoa zen profeta».

Jesusek, ordea, errege egiteko indarrez eraman nahi zutela ikusirik, mendira alde egin zuen berriro berak bakarrik.

Jaunak esana.

Blog: <https://homiliaspagola.blogspot.com/>